Sin./Fdo.: JOSEBA MIKEL GARCIA PEREZ - 2022-05-31
IDAZKARITZA NAGUSIAREN UNITATEKO BURUA
JEFE/A UNIDAD DE SECRETARÍA GENERAL
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2022-05-31
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A



**ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA KONTSEILUKO IDAZKARI ANDREAK**

**HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita biko maiatzaren hogeita hamaikan** egindako bilkura-saioan, erabaki hau hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 21. gaia.**

**“21.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA GURUTZETAKO OSPITALERAKO SARBIDE BERRIA (BI-10 ERREPIDETIK, BILBOKO NORANZKOKO GALTZADAN, ERREKAORTU AUZOAN) ERAIKITZEKO PROIEKTUA BEHIN BETIKO ONESTEKO.**

Lehenengoa.- **“GURUTZETAKO OSPITALERAKO SARBIDE BERRIA (BI-10 ERREPIDETIK, BILBOKO NORANZKOKO GALTZADAN, ERREKAORTU AUZOAN) ERAIKITZEKO PROIEKTUA”** eraikuntza-proiektuari dagozkion jendaurreko informazioko eta entzunaldiko izapideak ebaztea, bigarren aurrekarian eta igorritako txostenean adierazitako eran.

Bigarrena.- Behin betiko onestea “Gurutzetako Ospitalerako sarbide berria (BI-10 errepidetik, Bilboko noranzkoko galtzadan, Errekaortu auzoan) eraikitzeko proiektua” eraikuntza-proiektua. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe, **HIRU MILIOI BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMOKOA (3.252.743,62 euro)** da, eta **BEZarekin (% 21)**, berriz, **HIRU MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKOA (3.935.819,78 euro).** Aurreikusitako betearazpen-epea **HAMAR (10) HILABETEKOA** izango da, espedientean jasotako proiektua eta igorritako onarpen-txostena oinarri hartuta.

Hirugarrena.- Foru-erabaki hau jakinaraztea Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiari (Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordetza Nagusia), Ustiapen Zerbitzuari, Bide-segurtasunaren, Hobekuntzaren eta Modernizazioaren Zerbitzuari, eta Desjabetzeen eta Ukituriko Zerbitzuen Zerbitzuari, denak ere Foru Sail honetako administrazio-unitateak.

**ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, DIPUTADA FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

**CERTIFICA:**

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día **treinta y uno de mayo de dos mil veintidós**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 21 del Orden del Día.**

**“21º.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DEL NUEVO ACCESO AL HOSPITAL DE CRUCES DESDE LA CARRETERA BI-10 EN LA CALZADA DIRECCIÓN BILBAO, EN EL BARRIO DE RETUERTO.**

Primero.- Resolver los tramites de información pública y audiencia relativos al Proyecto de construcción del **“PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DEL NUEVO ACCESO AL HOSPITAL DE CRUCES DESDE LA CARRETERA BI-10 EN LA CALZADA DIRECCIÓN BILBAO, EN EL BARRIO DE RETUERTO,** según lo indicado en el antecedente segundo y en el informe remitido.

Segundo.- Aprobar definitivamente el Proyecto de construcción de Proyecto de Construcción del Nuevo Acceso al Hospital de Cruces desde la carretera BI-10 en la calzada dirección Bilbao, en el barrio de Retuerto”, con un Presupuesto Base de Licitación **sin IVA,** asciende a la cantidad de **TRES MILLONES DOSCIENTOS CINCUENTA Y DOS MIL SETECIENTOS CUARENTA Y TRES EUROS CON SESENTA Y DOS CENTIMOS (3.252.743,62 Euros)** y con **IVA (21%)** asciende a la cantidad de **TRES MILLONES NOVECIENTOS TREINTA Y CINCO MIL OCHOCIENTOS DIECINUEVE EUROS CON SETENTA Y OCHO CENTIMOS (3.935.819,78 Euros)**, así como un plazo estimado de ejecución de **DIEZ (10) MESES**, con fundamento en el proyecto que consta en el expediente y el informe para la aprobación remitido.

Tercero.- Comunicar el presente acuerdo foral a la Dirección General de Desarrollo Territorial (Subdirección General de Desarrollo de Infraestructuras), al Servicio de Explotación, al Servicio de Seguridad Vial, Mejora y Modernización y al Servicio de Expropiaciones y Servicios afectados, unidades administrativas de este Departamento Foral.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. YKAM-KYWU-SY4G-0KCO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) YKAM-KYWU-SY4G-0KCO en www.ebizkaia.eus.

<u>**Laugarrena**</u>.- Erabaki honen berri ematea Barakaldoko Udalari eta **Josu MARTIN UGARTE jaunari**, alegazioak aurkeztu baititu.

<u>**Bosgarrena**</u>.- Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bideari dagokionez, eta zuzenean errekurritu ahal izango da, **BI (2) HILABETEKO** epean, argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean.

Era berean, eta administrazioarekiko auzien bidetik jo baino lehen, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpen hau eman duen organoaren aurrean, **HILABETEKO (1)** epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita. Horrek ez du eragotziko egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso jartzea, hala badagokio.

<u>**Seigarrena**</u>.- Sail honen bulego birtualean foru-erabaki hau argitaratzea, 2022ko martxoaren 7ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu andrearen otsailaren 23ko 1642/2022 Foru Agindua argitaratu zela aipatuta, zeinaren bitartez proiektuaren ingurumen-eraginari buruzko txostena egitea ebazten den; era berean, erabaki honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den egunean.

<u>**Cuarto**</u>.- Notificar el presente acuerdo foral al Ayuntamiento de Barakaldo y a **D. Josu MARTIN UGARTE** al haber presentado alegaciones.

<u>**Quinto**</u>.- La presente Resolución que es definitiva en vía administrativa podrá ser recurrida directamente, en el plazo de **DOS (2) MESES**, contados a partir del día siguiente al de su publicación o notificación, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Igualmente, se podrá interponer, con carácter potestativo y previo a la vía contencioso-administrativa, recurso de reposición ante el órgano que ha dictado la presente resolución en el plazo de **UN (1) MES**, contado a partir del día siguiente al de la notificación, sin perjuicio de que pueda ejercitar, en su caso, cualquier otro recurso que estime procedente.

<u>**Sexto**</u>.- Proceder a publicar en la oficina virtual de este Departamento el presente Acuerdo Foral, haciendo referencia que en el Boletín Oficial de Bizkaia del 7 de marzo de 2022 se publicó la Orden Foral de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural 1642/2022, de 23 de febrero, por el que se resuelve formular informe de impacto ambiental del proyecto que ahora se aprueba y a publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia un extracto del presente acuerdo."

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.

***ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME***

Idazkaritza orokorreko unitateko burua.Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ.

***ZIURTATU. CERTIFICA*** Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta Idazkari andreak. La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretaria ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. YKAM-KYWU-SY4G-0KCO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) YKAM-KYWU-SY4G-0KCO en www.ebizkaia.eus.